

Donostia, 2020ko uztailaren 17a

UDALBATZAKO IDAZKARI NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA, EMAKUMEEN BIZITZAN ERAGINA DUTEN PARTIDAK EZ MURRIZTEARI BURUZKOA

Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramaile Aitzole Aranetak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, EMAKUMEEN BIZITZARI ERAGITEN DIOTEN PARTIDAK EZ MURRIZTEARI BURUZ.

JUSTIFIKAZIOA

Elkarrekin Donostia udal taldeak maiatzeko Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean Berdintasuneko, Elkartasuneko eta Eskubide Zibiletako zinegotzi ordezkariari egindako agerraldi eskaeran, zinegotzi arduradunak ez zuen adierazi zer aldaketa aurreikusten zituen berak kudeatzen duen atalean. COVID-19ak eragindako osasun krisiak eta alarma egoerak eragotzi egin zion Donostiako Udalari bere ohiko jarduera egitea. Ez hori bakarrik, baizik eta aditu guztiek aurreikusi zuten, konfinamendu betean, krisi ekonomiko bat etorriko zela osasun krisiaren atzetik. Aldi horretan, Udal Gobernuak zenbait neurri hartu zituen krisiari aurre egiteko.

Konfinamenduan, Udal Gobernuak osatzen duten taldeek proposatu zuten bost lantalde informal eratzea, COVIDaren pandemiak utzitako egoeraz arduratzeko. Horietako bat Gizarte Ekintza eta Sare Komunitarioen lantaldea zen, eta, bai Bozeramaileen Batzordean bertan, bai zer lantalde eratuko ziren aztertzean, interpelazio hau sinatzen duen bozeramaileak eskatu zuen lantalde horretan lantzeko gai hori, berdintasuna, elkartasuna eta eskubide zibilak gizarte eskubideak diren heinean. Alabaina, eskaera hori ez zen aintzat hartu.

Konfinamenduan, herritarrak ohartu dira lanpostu funtsezkoak direla orain arte oharkabean pasa zitezkeen zenbait. Ez da kasualitatea enplegu horietako gehienak oso lanbide feminizatuak izatea: erizainak, zaintzaileak, garbitzaileak, kutxazainak eta abar. Beraz, esan dezakegu COVIDaren krisian emakumeen bizkar egon direla funtsezko zerbitzu asko, bereziki zainketa lanei dagozkienak.

Baina, gainera, osasun krisiak ekonomia eta enplegu krisia ere ekarri du, eta oraindik ez dakigu zenbaterainokoa izango den krisi hori. Krisi honen aurretik ere, Euskadiko pobrezia emakume aurpegia zuen, emakumeek hein handiagoan jasaten baitute langabezia edo enplegu prekario eta partziala.

Donostiako Asanblada Feministak maiatzean jadanik adierazi zuen kezkatuta zegoela Aldundiak eta Donostiako Udalak iragarritako murrizketek nola eta nori eragingo zieten, eta nabarmendu zuen iragarpen horiek ez zirela batere argiak eta zalantzak zeudela murrizketa horiek batez ere pertsonentzako zerbitzuei eragingo ote zieten.

Horregatik, esan dezakegu COVIDaren krisiak bi aldiz eragin diela emakumeei. Lehenik, birusari aurre egin behar izan diote, unerik larrietan funtsezko lan asko eginez. Bigarrenik, emakumeek jasaten dituzte eta jasango dituzte, batez ere, pandemia hau eragiten ari den krisi ekonomikoaren eta enpleguaren ondorioak. Beraz, Elkarrekin Donostiak uste du bidezkoa dela, krisi honetan izan daitezkeen murrizketen aurrean, inbertsioak mantentzea emakumeen bizitzari zuzenean eragiten dieten gaitan.

Horiek hala direla, hau da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udaltzakoak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari ez dezala aurrekontu murrizketarik egin Emakumeen Etxearekin sinatutako hitzarmenean.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari bere hartan utz ditzala berdintasun arloko kontu-sailak 2020ko udal aurrekontuetan.
3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari has dezala elkarrizketa bat Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Donostiako Emakumeen Etxean murrizketarik egin ez dadin.

Izpta.: Aitzole Araneta

Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramailea